

Zeintzuk dira eraikuntzako ezbehar garrantzitsuenak?

Eraikuntza-lanetan askotariko egitekoak biltzen direnez, istripu mota ugari gertatzen dira.

Datu estatistikoaren arabera, honako hauek dira sektore horretan diharduten pertsonen izaten dituzten istripuen kausa nagusiak:

Maila batetik besterako erorikoak

Makinen kolpatzeak / iraulketak

Gehiegizko esfortzuak



Informazio gehiago hemen:



Sartu hemen eraikuntza-arloko lan-istripuen prebentziorako beste baliabide batzuk ezagutzeko



Sartu triptiko honetan eta deskargatu beste hizkuntza koofizial nahiz atzerriko batzuetan

Lan-istripuen kausa nagusiak

ERAIKUNTZAN



Maila batetik besterako erorikoak

LARRITASUNA ▲▲▲▲ INTZIDENTZIA ●●●○

Eraikuntzan gertatzen diren istripu larrien eta heriotza eragiten duten istripuen portzentajerik handiena osatzen dute.

JATORRIA

- Aldamioak, eskailerak, plataformak... oker erabiltzea.
- Mantentze-lanik eza edo baldintza kaskarrak.
- Babesik gabeko irekidurak edo maila-desberdintasunak.
- Lanerako prozedurarik eza.

NOLA SAIHESTU?

- Inprobisazioa saihestea eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak zehaztasunez planifikatzea.
- Langileen egokitasuna bermatzea (gaikuntza, prestakuntza, gaitasun fisikoa, esperientzia, etab.).
- Baliabide eta baldintza egokiak izatea: lanerako ekipoak, norberaren babesak, etab.
- Jardueren aldiberekotasuna aztertzea.
- Altuera txikietan egiten diren lanak ez gutxiestea (ondorioak berberak izan daitezke).

Babes kolektiboa norbanakoaren babesaren aurretik

Makinen kolpatzeak / iraulketak

LARRITASUNA ▲▲▲▲ INTZIDENTZIA ●●●○

Makineria eta ibilgailuen erabilerarekin lotutako istripuek intzidentzia handia dute sektorean, eta oso adierazgarriak dira istripu larrien eta heriotza eragiten duten istripuen zifrak.

JATORRIA

Kolpatzeak: ikusgaitasun eskasa, gehiegizko abiadura, seinaleztapenik eza.
Iraulketak: ezpona handiak, gehiegizko zama edo zama desorekatua.

NOLA SAIHESTU?

Kolpatzeen aurkako jarduketak:

- Sarbideak eta zirkulazio-bideak mugatzea, segurtasun-tarteak errespetatzea eta lan-gunea behar bezala seinaleztatzea.
- Operadoreen ikusgaitasuna bermatzea: atzerako ispiluak, maniobra konplexuetarako edo ikusgaitasun txikiko maniobretarako keinukariak, gaueko lanetan argiztapen egokia, ureztaketa bidez hautsa kontrolatzea, etab.
- Ibilgailuak atzera-martxaren seinale akustikoa eta argi-ohartarazlea izango ditu.

Iraulketak kasuetarako jarduketak:

- Indusketa-guneetan topeak jartzea, inor hurbil ez dadin.
- Maniobra zakarrak, gehiegizko zama eta gehiegizko abiadura saihestea.
- Iraultzetik babesteko kabina duten ibilgailuak izatea.

Segurtasun-uhala beti erabiltzea

Gehiegizko esfortzuak

LARRITASUNA ▲▲▲▲ INTZIDENTZIA ●●●○

Nahiz eta ondorio larririk ez duten izaten, sektoreko langileek izaten dituzten istripu gehienek eragileak izan ohi dira.

JATORRIA

- Gorputz-jarrera behartuak.
- Kargen eskuzko manipulazioa.
- Mugimendu errepikakorrak.

NOLA SAIHESTU?

- Eginkizunak txandakatzea, gorputz-jarrera estatikoak saihesteko.
- Lan-planoaren altuera egokitzea.
- Lana erosoagoa eta seguruagoa izan dadin errazteko baliabideak eta bitartekoak ematea.
- Ahal den neurrian, zama astunak maneiatzeko bitarteko mekanikoak erabiltzea.
- Zama astunak pertsona bakar batek ez manipulatzeko.
- Zama jaso eta garraiatzeko teknika egokiak aplikatzea.
- Egiteko errepikakorrek mekanizatzea.
- Atsedenaldirak egitea.

Osasun-arloko prestakuntzak eta zaintzak prebentzioa bultzatzen dute